



Berritasunak Silicie 2.0 bertsioan

2025eko urriaren 22an, urriaren 13ko 545/2025 Foru Agindua argitaratu zen ALHAOn, zeinaren bidez aldatzen baita urtarrilaren 27ko 30/20 Foru Agindua, fabrikazioaren gaineko zerga berezien xede diren produktuen kontabilitatea eraman beharra betetzea arautzen duena (SILICIE). Horrela, SILICIE 2.0 bertsiora egokitzen da Arabako Lurralde Historikoan dauden establezimenduetarako, eta 2026ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean.

SILICE 2.0 bertsio berrian sartutako berrikuntza nagusiak:

- Kontabilitate ekitaldiko figura sortzea.
- Eremuak normalizatzea, datuak interpretatzeko arazoak saihesteko.
- Aldaketak idazpenen egiturari.

Kontabilitate ekitaldia

Kontabilitate ekitaldiaren figura definitzen da, eta bat etorriko da urte naturalarekin.

Kontabilitate ekitaldia urte hasieran ireki beharko da, ekitaldi horri dagozkion idazpenak bidali aurretik.

Kontabilitate ekitaldi batean, urteko aldi horri dagokion mugimendu data duten idazpen guztiak taldekatuta geratuko dira, eta ez da arrastatuko aurreko ekitaldietako informaziorik. Beraz, urtearen hasieran bidali beharko dira kontabilitate ekitaldiaren hasieran establezimenduan dauden produktuen irekiera idazpenak. Izakinak kontabilitate ekitaldiko informazioarekin kalkulatu dira.

GARRANTZITSUA! Hasierako izakinei alta ematea kontabilitate ekitaldi BAKOITZEAN.

Ekitaldia amaitu ondoren, establezimendu bakoitzak kontabilitate ekitaldia itxi beharko du. Data jakin batean egin ez bada, ofizioz itxiko da automatikoki.

Ekitaldia itxi ondoren, ezin izango da idazpenez hornitu edo haiek baliogabetu, eta ekitaldia berriro irekitzeko eskatu ahal izango zaio Arabako Foru Aldundiko Zerga Berezien Bulego Kudeatzaileari.

Datuen normalizazioa

Idazpenen eremu guztiak normalizatzen dira, datuak interpretatzeko arazoak saihesteko. Normalizazioa honetan datza:

- Hasieran/amaieran tarteak kentzen dira eta karaktere guztiak letra larriz jartzen dira.
- Hitzen artean tarte bat baino gehiago badago, kendu egiten da.



- Azentuak kentzen dira.
- Karaktere bereziak kentzen dira, salbuespenen bat izan ezik: [.] eta [-]

Aldaketak idazpenen egiturari

Aldaketa batzuk egin dira. Ikus dokumentazioa: [SILICIE - araba](#)

- WSDL eta web zerbitzuen eskemak
- Web zerbitzuen deskribapena
- Taulak
- Fitxategien inportazioaren deskribapena
- Proba ingurunea:

Aldaketak izakinen kontsultari

Izakinen kontsulta independentea da kontabilitate ekitaldi bakoitzerako.

Produktua identifikatzeko, **deskribapena** sartu da taldekatze irizpide gisa. Hau da, kontabilitate idazpenen xede diren produktuak idazpenaren eremu hauekin identifikatzen dira:

- Epigrafe fiskala
- Epigrafearen kodea
- Gakoa
- NC kodea (nahitaezkoa)
- **Deskribapena (nahitaezkoa)**
- Erreferentzia (nahitaezkoa)

Produktu bat identifikatu ondoren, haren inguruko eragiketa, mugimendu eta prozesuei buruzko kontabilitate idazpen guztiek **identifikazio bera** izan behar dute aipatutako eremu guztietan. Hala, izakinen kontsultak kontabilitate ekitaldiko izakinak erakutsiko ditu, identifikatutako produktu bakoitzerako.